

EFL irakasle-trebatzaileen input-estiloak*

Tessa Woodward

Inkesta txiki informal bat burutu zen EFL irakasleen trebatzaileak input-estiloez noraino jabeturik zeuden jakiteko. Inkestak zenbait emaitza harrigarri eman zuen, baita eragin onuragarria izan ere inkestatzaileagan nahiz inkestatuagan. Galdesorta trebatzailearen autokontzientziaketarako tresnatzat eskaintzen da, baita trebatzaileen arteko jarrera-aldaketarako ere. Argibide batzuk ematen dira aplikatzeko, eta izan lezakeen balioa aztertzen da.

Inkesta egiteko arrazoiak

Ikastetxe nahiz unibertsitateko ikasgela askotan neuk sentitutako ezero-sotasun eta desatseginaren ondorioz sortu zitzaidan informazioa transmititzeko erari buruzko ardura, mezuarekiko berarekiko ardura baino handiagoa kasu askotan. Niretzat, jende askok “bigarren mailako”tzat hartzen duena “lehen mailakoa” bezain garrantzizkoa da, hau da, garraiatutako edukia bezain garrantzizkoak dira garraioak. Trebatzaile gisa, klase magistralen alternatibak bila ibili naiz zenbait urtez, eta aurkitu ere aurkitu ditut batzuk eta beste batzuk asmatu, eta trebatzaileek beren lana egiten duten bezala egiteko arrazoiei buruz hipotesiak formulatu. Gero, hipotesi horietako batzuk egiaztatzea erabaki nuen, neurri apal batean bederen.

Inkesta egin aurreko iritzia Hipotesiak

Hona hemen hipotesiak:

- 1 Trebatzaileek garbi ikusiko zuten trebatze-saioan landu beharreko edukia, baina informazioa transmititu edo lortzeko eta kontzientziazatze edo garapen hori zertu ahal izateko behar ziren estrategiei arreta gutxiago eskainiko zieten.
- 2 Trebatzaileen joera, hain zuzen, ikasle zirenean edo ikastaroetan parte hartu zutenean edo beste lankide batzuk lanean ikusita lorturiko esperientzia oinarritutako input-estragiekin lan egitekoa izango zen.
- 3 Esperientziagabeko trebatzaileek, beste input-metodo batzuk bazter-tuz, klase magistralak larregi erabiltzeko joera izango zuten (Davis eta Worley, Holden-en, 1979: 82. or.).

- 4 Trebatzaileak gehienez hamar input-estrategiaren jabe izango ziren eta harritu egingo ziren askoz gehiago ere badaudela jakinda.
- 5 Trebatzaileak metodo horiekin lasai eta eroso sentituko ziren eta ez zuten aldaketak egiteko interesik izango.

Hauek ziren nire aurriritziak, nik astindu nahi nituenak, hain zuzen!

Metodoa


Bildu nahi nituen datuek izaera kuantitatiboa baino gehiago introspektiboa eta kualitatiboa zutenez, eta norberaren historiako elementuak eta hautapen batzuen arrazoiak inplikatzeko zituztenez, metodo posible bakarra elkarrizketa zela iruditu zitzaidan. Datuak -trebatzaileen ikaskuntza eta estiloari buruzkoak- konplexuak izango zirenez, “triangeluazio”-motaren bat saiatzea erabaki nuen.

Triangeluazioa (batzuetan Metodo Anitzeko Ikerketa deitua) neurketa fisikoari buruzko terminoa da: “zenbait leku-markagailu erabiltzen dira puntu edo helburu bakar bat zehatz seinalatzeko”. Irakasle-ikerketan, datuak biltzeko bi metodo edo gehiago erabiltzea esan nahi du. Nik (i) behaketa eta (ii) elkarrizketa aukeratu nituen.

(i) Trebatzaileak behatu

Trebatzaileek ziotena ekitaldian egin zutela egiaztatzeko, beharrezkoa zen aztergai zen ekitaldiaren lekuko izatea. Ez nuen ekitaldien edukiaz ohar asko hartu, ekitaldiak gidatzeko era interesatzen baitzitzaidan batez ere, eta ez edukia. Sinbolo- eta diagrama-kode bat prestatu nuen, ekitaldian erabilitako formatu eta trebatze-teknika ezberdinetako aldaketak bizkor jaso ahal izateko modukoa. Hona hemen kodearen adibide batzuk:

A.H.	Aurrez aurreko hitzaldia (klase magistrala)
G.S.	Galdeketa sokratikoa
P.	Plenarioa
Zeregina-T.T.L.	Zeregina-Talde txikiko lanean oinarritua. Trebatzaile eta Trebagaien posizioak eta komunikazioaren norabide nagusia erakusten dituen diagrama.



(ii) Elkarrizketak

Galdera irekiak aukeratu nituen eta egituratu gabeko erantzuna, nik neure galderen testua eta ordena aldatu ahal izateko eta, behar izanez gero, zabaldu eta argitzeko; era horretan, elkarrizketatuek ere nahi bezain erantzun osoak edo/eta prestatu gabeak emateko aukera izango zuten. Aukera hauek, hain zuzen, neure aurriritziak astindu eta hipotesi berriak eraiki nahi nituelako egin nituen.

Galdesorta

Ondorengo hau izan zen galdesorta: .1.

Trebatzaileentzako galdesorta ekitaldi osterako

1. Edukiari dagokionez, zeintzuk izan dira zure helburu nagusiak ekitaldian?
2. Zein metodo/baliabide erabili duzu input hau transmititzeko: (aipatu, beharrezko bada) klase magistrala, informazio idatzia ematea, galderak, talde-lana, hormirudiak...?
3. Berariaz aukeratu al dituzu metodo hauek ekitaldirako, ala nahikoa sarri erabiltzen duzun konbinazioa dela esango zenuke..., hots, zure erreperitorioan dagoena?
4. Berariaz aukeratu badituzu, zer irizpideren arabera aukeratu dituzu?
5. Orain atzera begiratuz, metodoak talde, input, eta egoera konkretu horretarako egokiak zirela uste al duzu?
6. Atsegin izan al duzu metodo hauek erabiltzea?
7. Non eta noiz ikasi zenuen lehen aldiz metodo hauek erabiltzen?
8. Ordudanik izan al duzu denbora, aukera edo joerarik input-metodo hauei buruz inolako irakurketa, hausnarketa edo azterketarik egiteko?
9. Uste al duzu, nahi izanez gero, jakingo zenukeela horretarako informazioa non aurkitu?
10. Ezagutzen al duzu input hauek transmititzeko bestelako metodorik? Egingo zenidake horien zerrenda?
11. Inoiz ikusi al duzu norbait metodo hauetakoren bat erabiltzen?
12. Ezezko kasuan, nola izan duzu horien berri?
13. Ba al dago beste metodorik, sekula ikusi ez duzun arren, funtziona dezakeela pentsatzen duzunik? Zirkunstantzia egokiak izanez gero (behar hainbat denbora eta diru), ba al dago probatu nahiko zenukeen bide berri irudikorrik?
14. Ekitaldiaren plangintza egiterakoan, idatzi al zenuen inolako oharrik? Eman niezaieke begiratu bat?

Polonian proba gisako esperimentu informal bat egin ondoren, elkarrizketa nagusiak egiten hasi nintzen, guztira 18 osatuz. Hemezortzi ez da kopuru handia, eta ezin dezaket esan lagina Erresuma Batuko EFL trebatzaileen errepresentagarri denik. Saiatu nintzen, ordea, erakunde- edo ugazaba-mota, esperientzi mota, luzera ezberdineko esperientzialdi, sexu, trebatzaile ezagun eta zeharo ezezagun zitzaizkidanen artean oreka lortzen. Trebatzaile bakoitzarekin harremanetan jarri ondoren, nire lehen helburua beraren konfidantza lortzea zen. Nahiz eta trebatzaile asko behatuak izan diren aurrez EFL irakasle-lanean, eta batzuk agian beren trebaketariak erregulariki behatuko dituzten arren, trebatzailearentzat arraroa da “beren pareko” batek behatzea, lankide ez den batek, batez ere. Ez nuen nahi trebatzaileak urduri edo naturaltasunik gabe sentitzea beren lanean eta, beraz, ahalik eta gehien saiatu nintzen onarpen-jarrera izaten, epailearena egin gabe.

Ez dut lekurik 18 elkarrizketetan 14 galderetatik ateratako datu guztiak hemen jartzeko, baina laburbil ditzaket datu horien ondorioak.

Datuetatik ateratako ondorioak

Lagin txiki hartan, nire aurriritzietako asko baietsi zen; izan ere, ematen du trebatzaile askok, ekitaldien edukia gogoratu eta horretaz hitz egiteko oso gai diren bitartean, arazo gehiago dutela prozesu-teknikei buruz

gogoeta egiteko. Ez dirudi hauek bezain kontzienteki hausnartzen dituztenik beren planetan sartzeko, eta ez dirudi eskuartean teknika-aukera zabala dutenik ere. Dauzkatenak, izan ere, gehienbat beraiek ikasle izan zirenean esperimentatuak edo beste batzuei erabiltzen ikusitakoak dira. Ia erdiek zintzo aitortu zuten ez zutela input-estiloen arazoaz hausnartu, irakurri edo aztertu, lehenengo aldiz “estilo” bat onartu zuten garaitik, eta honek 1970-75 urte inguruetatik esan nahi zuen kasu askotan. Nik behatu nituenean, oso ongi ezagutzen zuten prozesu-hautapenen bat erabiltzen ari ziren trebatzaile gehienak. Asko ez zeuden batere ziur nora joko zuketan informazio gehiagoren bila, baina gehienei ahalgarriagoa iruditzen zitzaien norbaiti begiratuz ikastea irakurritz baino.

Trebatzaile gehienek “eduki-mota” eta “denbora” izaten dute metodoaren hautapena oinarritzeko irizpide. Hau ezustekoa izan zen niretzat. Nik uste nuen “ikasgela, espazioa, altzariak” eta “eskuarteko ikaskuntz mota” egongo zirela zerrendaren buruan.

Beste ezusteko batzuk:

- 1 Nahiz eta inork ez zuen esan berak eginiko prozesu-hautapena desegokia zela pentsatzen zuenik, ekitaldiko momenturen batean trebatzaileek esperimentaturiko emozio negatibo eta positiboen kopurua gutxi gorabehera berdintsua zen. Nik espero nuen trebatzaileak, berek aukeratu eta oso ongi ezagutzen zuten input-metodoa ari baziren erabiltzen, “eroso”, “lasai”, “etxean bezala”, “seguru” eta horrela sentituko zirela.
- 2 Trebatzaileen erdiek aitortu zuten informazioa eta ideiak beste arlo batzuetatik lortzen zituztela, esate baterako, yoga, informatika, antzespren, gestio-trebakuntza, sexu-terapia, aholkularitza eta abarretatik. Proporzioa askoz ere txikiagoa izango zela uste nuen nik.
- 3 Trebatzaile gehienak, pentsatzeko astia eta iradokizun batzuk emanenez gero, ederki moldatzen ziren sekula ikusi gabeko baina probatzea gustatuko litzaizkiekeen ideiak proposatzeko. Nik ez nuen inola ere erantzun askorik espero 13. galderari, baina zorte oneko zenbakia suertatu zen!

Galdeketariaren- tzako esperientzia

Neure burua trebatzaileen estiloak ez epaitzera behartuz, benetan epaile ez izatera iritsi nintzen (hasieran nahikoa epaile sentitzen banintzen ere!). Proiektua aldatu egin zen niretzat, beste ikaskuntz arazo bat bezala hartzeraino iritsi nintzelarik, baina trebatzaile mailan orain. Ohartu nintzen trebatzaileek, batzuetan departamentu onetan eta beste batzuetan txarretan lan eginez, oro har beren buruak prozesu-hautapenen aukera txikira mugatzen zituztela, pentsatuz hautapen haietarako oinarri ona zutela, nahiz eta ekitaldietan zehar asko nolabait ere ezeroso sentitu, aukeratu zituzten prozesuak aukeratu zituztelako.

Galdekatuaren esperientzia

Trebatzaile gehienek gizalegetsu baina poz handirik gabe hasi zuten elkarriketa (garbikariei buruzko merkatua ikertzeko beste inkesta bat

ote?), baina ia guztiak nabariki “gogoberotu” ziren gaiarekin, abiada mantsotuz, erantzunak kontuz emanez eta azkenean eskerrak eman zizkidaten aurrez oso gutxitan aztertua zuten beren laneko arlo bat hausnartzeko aukera emateagatik.

Galdesortarentzat etorkizunik?

Trebatzaileek galdesortari oso gogotsu erantzun ziotenez, eta galdeketa-ri nahiz galdekatuarentzat eragin onuragarriak izan zituela ematen zue-nez, publiko zabalagoari eskaintzea erabaki nuen, erabilerarako zenbait iradokizun eginez.

- 1 Uste dut trebatzaile bakoitzak bere autokontzientziaketarako tresnatzat erabil dezakeela galdesorta. Trebatzaileak, izan ere, input-ekitaldi arrunt bateko bideo edo kaseteko grabazioa, hain zuzen, eseri eta galderak hausnartzeko astiarekin konbina dezake, bere trebatze-estilo eta ohituretan gehiago sakontzeko helburuaz.
- 2 Galdesorta sarrerako edo ikastaro-aurreko zeregina izan daiteke, trebatzaile-garapenari buruzko ikastaro edo batzar baten aurretik. Ez dago erantzunak azaldu beharrik, baina ondoren ikastaroaren barnean erabil daiteke eztabaidetan edo hainbat input-teknikatan mikro-trebakuntza egiteko.
- 3 Galdesorta eta elkarriketak trebatzaileak elkartzen diren edo elkarrekin lan egiten duten edozein lekutan erabiltzeko egokiak dira es-tilo bariatua ziurtatzeko, ez bakarrik trebatzaile baten lanaren bar-ruan, baita departamentuko trebatzaileen artean ere. Inor epaitu nahian ez bada erabiltzen, trebatzaileen arteko konfidantza areago-ту egin lezake taldearen barruan.

Edozein egoeratan ere funtsezkoa da galdesorta ez erabiltzea elkarriketa-tua ebaluatzeko. Honelako mehatxuen pean trebatzaileek, gizaki normal guztiek bezalaxe, modako erantzun “zuzenak” emateko joera izango dute, eta ezer gutxi ikasiko dute bi aldeek. Elkarriketa bezala egiten bada, az-terturiko ekitaldian bertan egon behar du elkarriketatzaileak. Honek ira-dokitzearen eta zuzentzearen arteko oreka sutil horretan mugitu behar du, sortzen den guztia onartzeko papera jokatzuz; eta trebatzaileak, hizkuntz ikasgelako mailara lerratzeko joera dutenean, *trebatze*-ikasgelako mailaz hitz egitera itzularazi beharko ditu agian. Lerraketa hauek ezinbestean gertatuko dira trebatzaileak hizkuntz ikasgelako taktikak aztertzerako ohitu-rik daudenean, baina ez trebatze-ikasgelako taktikak aztertzerako.

Galdesorta erabiltzearen balioa

Trebatzaileek berek bakarrik, bikoteka edo taldeka galdesorta erabiltzea arrazoi askorengatik da baliotsua.

- 1 Beste trebatzaile batzuek nola lan egiten duten ikusteko aukera ematen die.
- 2 Besteren lana ez epaitzen ikasten dute.
- 3 Ekitaldiak *nola* gidatzen dituzten hausnartzera behartzen ditu, ho-rietan jartzen dituzten edukiez gain.

- 4 Input-estiloetan kontzentratu eta gogoeta egiteko astiak, bestalde, estilo berriekin –besteengandik harturiko nahiz berek asmatu-rikoe-kin– saiakuntzak egiteko adorea emango die trebatzaileei.
- 5 Behaketak eta elkarriketak burutu ondoren azterketa gehiago egi-teak, gainera, mota ezberdinetako gai, trebaketari, espazio-antola-mendu eta abarretarako input-hautapen ezberdinen on-gaitzak az-tertzera eraman ditzake trebatzaileak. Denborarekin, trebatze-meto-do eta planteamenduei buruz “behetik gora”ko eragina izatera eta trebaketari-ikaskuntzaren azterketetara eraman lezake honek, “tre-batzaileek ekitaldietan egiten dutenarekiko” ardurari behin bere bidea egiten utzi ondoren.

Konklusioak

Trebatzaile askok bakarka lan egiten du, baita beste trebatzaile “batzue-kin” lan eginda ere. Eskuarki trebatzaileei ez zaie argibide edo aholku-rik ematen beren ikastaroak zuzentzeko eraz. Ekitaldietako edukiei buruz laguntzeko liburuak eta artikuluak dauden bitartean, ezer gutxi dago aurkezpenetan laguntzeko. Edonola ere, gauza hauek hobeto ikas daitezke ikusiz eta eginez, irakurritz baino. Trebatzaileek ere atsegin izan lezake bakarrik, bikoteka edo taldeka lanean elkar ikustea, baina agian zail gertatuko zaie horrelako “behaketa” bat iradokitzea. Input-moduen edo “prozesu-hautapenen” azterketa hastea, hortaz, hasiera ona izan daiteke epaitu gabe begiratzeko, ondoren elkarriketak eta az-terketak eginez. Trebatzaileek –irakasleek, ikasleek eta jende normalak bezalaxe– zer ikasi asko dute. Galdesorta hasierako susperbide izan dai-teke, kontzientzia, eztabaida eta ideiak martxan jartzeko, ikaskuntza gauzatzeko ezinbesteko susperbidea.

Itzultzailea: Iñaki Mendiguren

Oharra

* Ingelesezt “Styles of EFL Teacher Trainer Input”, *System* (17. bol., 1. zenb., 1989. Pergamon Press Ltd. Oxford, England) aldizkarian argitaratua. Be-raien baimenez itzulia eta berrargitaratua. © Per-gamon Press plc 1989.

Bibliografia

- Britten, D.** 1985. Teacher training in ELT. Kinse-lla, V. *et al.* (ed.ak)-en, *Language Teaching*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Cohen, L.** eta **Marion, L.** 1980. *Research Methods in Education*. London: Croom Helm.

Davis, R. eta **Worley, P.** 1979. Who trains the train-ers? Holden, S. (ed.)-en, *Teacher Training*. M.E.P.

Evans, K.M. 1968. *Planning Small Scale Research*. Slough: N.F.E.R.

Holden, S. 1979. *Teacher Training*. M.E.P.

Hopkins, D. 1985. *A Teacher's Guide to Class-room Research*. Milton Keynes: Open University Press.

Autorea

Pilgrims Hizkuntz Ikastaroak eta Hilderstone Colle-ge, Kent, Erresuma Batua.